

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	NEIKER. Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea
2. Sektorea:	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera atxikitutako erakundea.
3. Langile kopurua:	190
4. Webgunea:	https://neiker.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkaturak, bezero motak...):	<p>Euskadiko nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza sektorearentzat egiten dugu lan. Sektorearen lehiakortasuna hobetzen, gure ingurumena zaintzen, gure espezie eta arraza autoktonoak kontserbatzen eta elikagaien segurtasuna bermatzen laguntzen dugu. NEIKERek zeregin horiek gauzatzen ditu 1851n sortu zenez gero, nazioartean aintzatespena eta kualifikaziorik handiena duen profesional talde baten lanari esker.</p> <p>Gure ehun produktiboari eta gizarteari zerbitzua emateko borondatea duen erakunde publikoa gara, eta bikaintasunean oinarritutako kudeaketa eredu baten alde egiten dugu, zeinaren funtzionamendua nazioartean aitortutako kalitate irizpideen arabera arautzen den.</p> <p>2019an, BRTA Euskadiko Partzuergo Zientifiko-Teknologikoan sartu zen NEIKER. BRTAren helburu nagusia lankidetzaren dinamika bat ziurtatzea da, Euskadik dituen erronka teknologikoei eta industrialei erantzuteko eta nazioartean duen posizionamendua hobetzeko.</p> <p>Lantalde honen gaitasunari esker, ezagutza eta soluzio berritzaile eta transferitzeko modukoak sortzen dira, eta horiek balio erantsia eman eta hobetu egiten dute nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektorearen lehiakortasuna.</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak ezarritako helburuekin bat etorriz egiten du lan NEIKERek. Hauek dira helburuak: ingurumenarekiko eta gure ingurunearen iraunkortasunarekiko ahalik eta errespeturik handiena mantentzea, eta gure ingurunearen garapen ekonomiko eta sozialari modu aktiboan laguntzea.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Eva Ugarte
Helbide elektronikoa:	eugarte@neiker.eus
Telefonoa:	

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	NEIKER. Lehen sektorean egindako ikerkuntzaren dibulgazio zientifikoa euskaraz
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Euskara, ezagutza bezalaxe, gizarte kohesiorako elementu garrantzitsuenetakoa dela uste dugu NEIKERen. Horregatik, NEIKERek eta bertako ikerlari euskaldun inplikatuak zientziaren dibulgazioko hainbat jardunaldi eta mahai-ingurutan parte hartzen dute eta NEIKER partaide egiten dute zientzia eta bere dibulgazioa euskaraz egiten.</p> <p>Zientzia arlo zabala da eta horretan aritzen garen erakundeen arteko elkarkidetzeta eta hitzarmenak izatea garrantzitsua. Era berean, sektore berdinean dihardugun erakunde ezberdinen arteko elkarkidetzeta ere oso garrantzitsua da, euskararen erabilera sustatzeko. Eta beste hainbatetan gertatzen den bezala, euskaldun eta kide adituen inplikazioa oinarritzakoa da zientziaren dibulgazioa euskaraz egiteko. Horrela, dibulgazio zientifikoa euskaraz egiteko konpromisorako ekimen ugari jarri ditugu martxan:</p> <ul style="list-style-type: none">- 2016.ean Hitzarmena Elhuyar Fundazioarekin, lehen sektorearen arloan euskara sustatzeko. 2023ko urte honetan berriro ere, hitzarmena eguneratu eta sinatu egin dugu. Euskarazko dibulgazio zientifikoaren aldeko konpromiso horren ondorioetako bat, euskarazko ikerketa lanik onenak bereizten dituzten CAF-Elhuyar sarietan gure parte hartze aktiboa da. Sari hauetan, NEIKER-Sari berezia ere badago lehen sektoreko ikerkuntza arloan egindako lanik onenarentzat. NEIKER-Saria gainerako CAF-Elhuyar sariekin bateragarria da. 2023an Sariak Apirilaren 26an banatu ziren. Leire Barañano NEIKEReko Zuzendari Orokorra eta Bittor Oroz Nekazaritzako Sailburuordea egon ziren sari banaketan eta azken honek eman zion saria Aitor Garmendia sarituari. Sari honetaz gain, hitzarmenak baditu beste helburu orokor batzuk. Horrela, 2023an NEIKER eta Elhuyar Fundazioaren arteko hitzarmen berriaren harira, sinaduraren inguruan euskara hutsezko jardunaldia antolatu zen NEIKERen: Nekazal Sektorearen erronkak. Saio zientifiko interesgarri eta hurbila izateaz gain, hausnarketarako espazio polita bilakatu zen. Gainera, ZIENTZIA-AZOKAN NEIKERek parte-hartze aktiboa du eta irabazle diren eskolei NEIKERera bisitan etortzeko eta egiten duguna bertan ikusteko aukera eskaintzen zaie.- O11: Zientzian Emakumeen eta Neskatilen Eguna. Euskara hutsezko hitzaldiak emanohi dituzte NEIKEReko ikerlari ezberdinek, bokazio zientifikoak esnatzeko.- Nekazaritzako Saiburuordetzaren eta Elhuyarren arteko akordio batean oinarrituta, gai ezberdinei buruzko Podcastak egin dituzte NEIKEReko ikerlari batzuk. SUSTRAI digitalean eta EITB nahieran eskuragarri daude eta nekazal arloko gai buruzkoak dira. NEIKERez gain HAZI, AZTI eta ELIKA erakundeek ere hartu dute parte.- IKUSGELA proiektua. Mundua ulertzeko helburu didaktikoa duten bideoak egitea da asmoa, euskaraz eta libreak. Gai ezberdinei buruzko bideoak dira eta NEIKERek ingurumenari buruzko bideo sorta bat egiteko konpromisioa hartu eta horretan aritu dira bertako hainbat ikerlari.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)



NEIKER-Elhuyar hitzarmen berriaren sinadura eta "Nekazal Sektoreren erronkak" jardunaldia. 2023ko Martxoaren 2an.



NEIKER-Sari bereziaren banaketa saioa. 2023ko Apirilaren 26an.



Zientzian Emakumeen eta Neskatilen Eguna. 2023ko Otsailaren 11an



Nekazal sektorearen inguruko gai ezberdinei buruzko podcast sorta



IKUSGELA proiektuko bideotan NEIKEReko ikerlari batzuk



NEIKEReko ikerlari batzuk euskara hutsean egiten diren hainbat jardunaldi eta mahai-ingurutan parte hartzen